

AZPEITIA / Ekitaldi ugari aurreikusita Udal Liburutegian

Udazkenera begira ekitaldi ugari antolatu dute Udal Liburutegian. 4tik 10 urte bitarterako umeen irakurzaletasuna suspertzeko eta liburutegiarekin harremana sortzeko helburuarekin, XXIII. Ipuin kontaketa saioak egingo dira, ipuin kontalari desberdinekin. Nobedade gisa, abendua bitartean bi literatur solasaldi jarriko dira martxan. Moderatzaile gisa, Pako Aristi azpeitiar idazlea izango da. Interestuek liburutegira bertara jo behar dute eta informazio gehiago eskainiko zaie. Taldea osatzeko lehen bilera, asteartean, hilaren 25ean, egingo da, 19:00etan. Bestalde, udal liburutegiak blog propioa sortu berri du, '<http://liburutegiak.blog.euskadi.net/azpeitia>' da helbidea. Liburutegian egiten den guztia gertutik jarraitzeko aukera izango dute barneratzen direnek. Aldiz, eraikuntzara gerturatuz gero, ohi bezala, liburuak, aldizkariak, DVDak edo egunkariak aurkitu ahal izango dira.